



Astigarragako Udala  
Alkate Jaunarentzat  
Foru Enparantza, 13  
20115 Astigarraga (Gipuzkoa)

2021eko uztailaren 1etik aurrera, "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak" errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraioaren zerbitzu publiko erregularra berria hasiko da.

A partir del 1 de julio de 2021, comenzará la prestación del nuevo servicio público regular de transporte de viajeros interurbano por carretera de "Tolosa, N-I y Buruntzaldea y sus conexiones con San Sebastián".

Une honetan, zerbitzu-eskaintza amaitzen ari gara, eta A1 eta A2 lineetako egungo zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen kezak/erreklamazioak ikusita, honako aukera hauek planteatu nahi dizkiogu udal honi, horri buruzko gogoetak helaraz diezazkiguten.

En estos momentos estamos ultimando la oferta de servicio y vistas las quejas/reclamaciones de las personas que utilizan los actuales servicios de las líneas A1 y A2, queremos plantear a este ayuntamiento las siguientes alternativas con objeto de que nos hagan llegar sus consideraciones al respecto.

1. A1 linearen maiztasuna murriztea: ordubeteko maiztasunera pasatzea proposatzen dugu, gaur egungo 30 minutukoaren aurrean; eta A2 linearen maiztasuna handitzea, 30 minututik 20ra igaroz.
2. A1 linearen ibilbidea aldatzea, ibilbide-denbora murrizteko. Hau da:
  - a. Astigarraga udalerrira sartzea saihestea (pilotari, Galtzaur 8, Galtzaur 24 Donostiarako noranzkoan eta Pelotari kalea eta Kale Nagusia Hernanirako noranzkoan bertan-behera utziz), Astigarragan A2 linearen ibilbide bera eginez.
  - b. Donostiara sartzeko ibilbidea aldatzea: "Loiolako topoa" geralekutik, "Loiolako erriberak", "Madril etorbidea, 3" eta "Antso Jakituna, 33" geralekuak egingo lirateke, "Okendo" geralekuraino. "Bartzelona 35", "Bartzelona 15", "Gregorio Ordoñez" eta "Madril etorbidea, 19" geralekuak bertan behera utziz.

1. Reducir la frecuencia de la línea A1, pasando a tener frecuencia de 1 hora frente a la actual de 30 minutos y aumentar la frecuencia de la línea A2, pasando ésta de 30 a 20 minutos.
2. Modificar el itinerario de la A1 para reducir su tiempo de recorrido. Esto es:
  - a. Evitar la entrada al municipio de Astigarraga (eliminar las paradas Pelotari, Galtzaur 8, Galtzaur 24 sentido San Sebastián, y Pelotari Kalea y Kale Nagusia sentido Hernani) realizando el mismo recorrido que la línea A2 en Astigarraga.
  - b. Modificar el recorrido de acceso a San Sebastián: desde la parada "Topo de Loiola", se realizarían las paradas "Riberas de Loiola", "Avenida de Madrid,3" y "Sancho el Sabio, 33" para continuar con el recorrido habitual hasta "Okendo". Se eliminarían las paradas "Barcelona 35", "Barcelona, 15", "Gregorio Ordoñez" y "Avenida de Madrid,19".

3. Aurreko bi aukerak batera aplikatzea.

3. Aplicación de las dos alternativas anteriores conjuntamente.



Horrela, A1 linearen ibilbide-denbora murriztu nahi dugu, erakargarriagoa izan dadin eta A2 linearekin lehiakorragoa, erabiltzaile gehienek ahalik eta zerbitzu zuzenenak bilatzen baitituzte.

Erantzun azkar bat eskertuko genuke, maiatzaren 21a baino lehen, zerbitzu-eskaintza itxi, programatu, probatu eta ordutegiari buruzko dokumentazio guztia prestatu ahal izateko, herritarrei informazioa emateko.

Adeitasunez,

Con ello pretendemos reducir el tiempo de recorrido de la línea A1, para hacerla más atractiva y competitiva con la línea A2, dado que la mayoría de las personas usuarias buscan los servicios más directos posibles.

Agradeceríamos una respuesta rápida, con anterioridad al 21 de mayo, para fin de poder cerrar la oferta de servicio, programarla, probarla y preparar toda la documentación de horarios para facilitar la información a la ciudadanía.

Atentamente,

Donostian, 2021eko maiatzaren 13an  
San Sebastián, 13 de mayo de 2021

**Ander Iturri Torrea**

Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendari nagusia  
Director general de Movilidad y Transporte Público

